

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2 h 40 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 10 galdera. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1000 hitz gehienez. 	40 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	120 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak betetzeko (1, 2, 3...) zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago**.

PENTSIOAK: EZTABAIDA DESEGOKI BAT SISTEMAREN ETORKIZUNARI BURUZ

Temaz ekiten diogu pentsio-sistemak behar duen orekaren inguruko eztabaida desegokiari, eta oker gabiltza, eztabaida hori ez baitator bat egungo garaiarekin eta etorkizunarekin.

Pentsioak finantzatzeko kotizazio sozialak oinarritzat dituen sistema, finean, zera da: erabil daitezkeen artean, beharrik oinarritzkoenak ahalbidetzeko formulatako bat; XXI. mendeko gure gizarteko eskubide unibertsal bat.

1 Eta soldata, berriz, pertsona batek duin bizitzeko behar duen hileroko diru-saria. Jada lanik egin ezin duenaren pentsioak nahikoa izan behar du beretzat, bere testuinguru pertsonal, sozial eta historikoan duin bizitzeko aukera izan dezan.

Adinagatik edo gaixotasunengatik lanik egiteko gai ez dena ezin da bizi laguntza sozial aldaberetatik, beti laguntza eta politika sozial xeheen mende. **2**

Konbentzio historikoaren arabera, kotizazio ez-aktuarialak izan dira sistemaren ardatz, eta horrek ahalbidetzen du ekarpen handiagoa egin dutenek pentsio hobea jasotzea. Izan ere, aurrerabidearen trenak jada ez dira pasatzen adin batetik aurrera eta, behin adin horretara iritsita, garrantzitsuena ez da zenbat kotizatu duen bakoitzak bere lan-bizitzan; besteak beste, norberaren ahaleginaren eta sistemaren ondorio izango baita hori, eta sistemak batzuei erraztasunak emango dizkie bizitzan aurrera egiteko, eta besteei, aldiz, zailtasunak jarri.

Ez dut gutxiesten gehiago kotizatu duenak gehiago jaso behar duela dioen araua, baina mugatutzat jotzen dut. Ekonomikoki duin bizitzeko gutxieneko kopuru bat ezartzea, horixe baita garrantzitsuena. Erretiro-sariei dagokienez, hori da funtsezko premisa. **3**

Errenta eta aberastasuna desberdinkeriaz banatzea da gure garaiko ezaugarri nagusia. Eta aberatsei zerga eta kotizazio handiagoak ezartzea da gastu publikoan izaten diren finantza-desorekei aurre egiteko modu bakarra. **4** Badirudi gure herriko aberatsenek ez entzunarena egiten dutela halakoak esaten direnean. Lotsagarria da ikustea garai honetarako zein desegokiak diren patronala eta eskuina. **5**

Hori guztia aintzat harturik, eta nahiz eta oraindik ere ziurtzat jotzen dudan kotizazio-sistemaren finantza-oreka konbentzio batean datzala eta premisa hori lasai alda dezakegula Estatuko aurrekontu orokorren bidez, Espainiako Gobernuak eta Europako Batzordeak egindako proposamenaren alde nago, sindikatuek babestu eta enpresariak gutxietsi duten proposamen horren alde. Oraingo sistemak arreta handiagoa jarri behar du ordaintzeko gaitasunean eta behar sozialean, eta gutxiago arduratu behar du batzuen esanetan, ez baita egia kotizazioak handitzeak porrot eginaraziko diela Espainiako enpresei.

TOÑA, A. Berria. 2023-03-18.
Egokitua

1. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A.** Eta lotura izan behar du jendearen ekonomiarekin eta finantza egoerarekin, adinagatik lan egin ezinda gelditzen direnean gizarteak berma diezaien behar besteko diru sarrerak izango dituztela.
- B.** Zergatik sartzen dira Estatuaren aurrekontuetan, eta zerga orokorren bidez finantzatu, hezkuntza publikoa, justizia, defentsa edo osasungintza, eta ez da berdin gertatzen pentsio publikoekin?
- C.** Pentsioak dira adinekoentzako politika sozial nagusia, diru-sari horrek ematen baitie modua aski duin bizitzeko.
- D.** Pentsioak adinekoen soldata dira egun, ezinduen, jada lan-merkatura sartzeko eta soldata bat eskuratzeko aukerarik ez duten horiena.
- E.** Beste gizarte batzuk, beste herrialde batzuk, non eskuineko eta zentroko gobernuak dauzkaten eta enpresariak herritar kontzientzia handiagoa daukaten, aurre egiten ari zaizkio hemengoek aintzat hartzen ez duten errealitate bati.
- F.** Baieztapen sendoa da hori, eta ez du ezkerreko ikuspegia abiapuntu, konbikzio soziala baizik.

■ Idatzi dagokion letra ondoko lauki hauetan:

Hutsuneak	1	2	3	4	5
Testu zatiak					

Soberakoa

OHARRA: Soberako aukera hau **ez da jaso behar erantzun-orrian.**

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA ARDATZ

Hezkuntzaren ingurumarian curriculum berriaz ari garela, definizio askoren ezaugarririk behinena bihurtu da *euskara ardatz* kontzeptua erabiltzea. Hainbat ertzetatik uler liteke horren esanahia, nork, nola, noiz eta zertarako erabiltzen duen; halere, balirudike *euskal dimentsioak* curriculumean beharrezkoa duen trataera sakonagoa zuzitzeko makulu gisa hartua dela askotan. Asko iradokitzen duenez, ohikoa da lelo gisa erabiltzea hezkuntza-eragileen diskurtsoan, baina, era berean, erabilpen horren atzean, maiz, hizkuntza gutxituaren normalizaziorako premia urturik gelditzen da, edota curriculumaren euskal dimentsioaren sakondu beharra saihesturik.

Izan ere, euskara oinarrian duen hezkuntza-sistema eleaniztuna da gurea, baina eleaniztasuna ulertzeko moduak ez dira askotan bat etortzen. Zeren euskarari oinarritzen den eleaniztasuna ulertzeko eran bada nagusitzen den ideia xalo bat, hizkuntzen arteko harremanak era idealistan ikusteko joeratik elikatzen dena, diglosia egoera eta hizkuntza gutxituaren errealitate soziolinguistiko hauskorra saihesten duena, hizkuntzen arteko botere-harremanak alboratuz, hizkuntzen elkarbizitzaren kontzeptu lausoagoan urtzen dena.

Baina, euskaldunena bezalako hizkuntza-komunitatearen kasuan, hizkuntza gutxitua barne hartzen duen eta hizkuntza gutxituaren kontzientzia galdu ez duen hezkuntza-komunitatearen hizkuntza-jarrera iraunkorri eustea berebizikoa da gaur egun ere. Izan ere, euskara hizkuntza gutxitua dela aintzat hartu gabe, nekez egingo dugu aurrera hezkuntza bidezko euskalduntzea areagotzeko jautzian. Hargatik, hizkuntza gutxituaren erabilera sustatuko duen eleaniztasunaren ulerkera da guri hemen interesatzen zaiguna, curriculumaren *euskal dimentsioa* erdigunean jartzeko, hizkuntzaren eta kulturaren auzia hezkuntza-sistemaren erdiguneko ezaugarri oinarritzakoena dela berretsiz. Zeren hizkuntza hegemonikoen eleaniztasunaren ikuspegiak dakarren inertziari loturik bakarrik, funtsezko euskal dimentsioari ez diogu behar bezala heltzen, hau da, eskutik doazen euskarari eta euskal kulturari, alegia. Horiek direlako curriculumaren euskal dimentsioaren taupada eta bihotza.

Hezkuntzaren ingurumari honetan, sarritan, hizkuntzez hitz egiten da egoera berean baleude bezala, horrek gaitasun eleaniztunaren garapenean dituen baldintzapenak aintzat hartu gabe, euskal hezkuntza-sistemaren lehen premisa denean hizkuntza gutxiagotuaren biziberritzea bermatzea. Zeren, oraindik ere, euskara hezkuntza-sistema osoaren hizkuntza normalizatua izan dadin, bidea dago egiteko. Ezingo da erronka berdindu D ereduaren zabalkundea egintzat jo eta gero; izan ere, normalizaziorako premia gorrian dagoen hizkuntza gutxitua da gurea, eta hezkuntza-sistemaren erdigunean dago. Abiaburu hori aintzat hartu gabe, ezin hezkuntza bidezko euskalduntzea areagotzeko jauzi berririk eragin: normalizazio linguistiko-kulturalaren premia gorria daukan hezkuntza-sistemak lege euskarri sendoak beharko ditu aurrera begira ere.

Hara nola, euskal dimentsio barnearen azken xedean, hizkuntza gutxitua erabili nahi eta erabiliko duten ikasle eleaniztunak sortzea dugu helburu, nola ez. Baina berezko hizkuntzaren hiztunik gabeko eleaniztasunaren ulerkera xalo hori zalantzakoa zaigu behar besteko zehaztapenik eman ezean, egoera soziolinguistiko hauskorrean dagoen hizkuntzak berariazko trataera konpentsatzailea behar-beharrezkoa baitu. Baliabide gehiago eskainiz gutxiagotasun egoeran dagoena orekatuz. Haatik, eleaniztasunaren ulerkera hori ezin da izan hainbeste harreman simetria terminoetan ulertzen den eleaniztasunaren eredu, lur bati atxikitzen zaion hizkuntza eta kultur identitate bat sortzeko baliagarria zaigun eredu eleaniztuna baizik.

Euskarak eta euskal kulturak curriculumaren euskal dimentsioa asebetetzeko saiakerak hizkuntzaren ekologiaren printzipiotik edaten du, horretan datza hizkuntzen arteko elkarbizitzaren bermea, eta horren arabera zentralitate osoa eman behar zaio hizkuntza gutxituari, errealitate soziolinguistikoa aintzat hartuz eta neurri zehatzak adostuz, hots: esku hartzeko estrategia sendo bat, norabidea ezarriko duen hizkuntza plangintza bat, hizkuntza gutxiaren biziberritzeko prozesu iraunkorra bermatuko duen egitura, eta giza baliabideen nahikotasuna.

Hezkuntzarako lege berriak euskal kulturaren transmisioa bermatzeko baliabideak eman beharko lizkiguke, alajaina, beharrezko adostasunak lortuz, aukera errealak bezain bideragarriak eskainiz hezkuntza bidezko euskalduntzea areagotzeko arduran, euskal kulturaren transmisioa hezkuntzaren arduratik garatu ahal izateko: euskal kultura ardatz izango duen curriculumak sakontasunez garatu eta euskal kulturgintzaren transmisiorako plan integral osatua hezkuntza sare osora zabalduz.

LARRAÑAGA, J. *Berria*. 2023-02-09.
Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

6. Zer dio egileak *euskara ardatz* kontzeptuaz?

- a) Hezkuntzako eragile guztiak ez datozela bat haren erabileraren behararekin.
- b) Kontzeptu argia eta zehatza dela, baina mamirik gabekoa.
- c) Ez ote dituen zehaztasun gehiago falta izen zabal eta maiztuegi horrek.

7. Zer dio Larrañagak *eleaniztasunaz*?

- a) Hizkuntza gutxitua are gehiago zapaltzeko tresnatzat dutela batzuek.
- b) Kontzeptua hezkuntzan planteatuta dagoen moduan, euskara galtzaile ateratzen dela.
- c) Arduragabea dela esatea hizkuntza guztiak maila berean sustatuko dituela.

8. Zer da *euskal dimentsioa*, Larrañagaren ustez?

- a) Dagoen hizkuntza-errealitate eta -aniztasuna errespetatu behar duen ikuspegia.
- b) Hezkuntzan sustatu behar den mundu-ikuskerak, euskara eta euskal kultura ardatz.
- c) Inork ondo definitu nahi ez duen kontzeptu lausoa.

9. Zer aipatzen du egileak “*hizkuntza gutxitua*” ezaugarriaz?

- a) Horrelako hizkuntzak ere erabiltzeko aukera izango dutela etorkizuneko belaunaldiek.
- b) Maila horretan dauzkagun hizkuntza guztiak suspertu behar direla.
- c) Hil ala bizikoa dela euskararen nolakotasun hori lehen lerrora eramatea.

10. Zer lortu beharko luke lege berriak, Larrañagaren aburuz?

- a) Egiturazko aldaketa lorgarria euskara eta kultura transmititzeko.
- b) Eragile guztien adostasuna, helburu handinahiak eskuratzeko.
- c) Plan orokor bat garatzea, sare publikoan euskal kulturgintza transmititzeko.

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa.
 - Euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA 2. ARIKETAREN OSTEAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.
Gutxienez 250 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA:

Azkenaldian, zerbitzuko langileak ez dabiltzala gustura igarri duzu, alegia, motibazioa erabat galdu dutela. Horrek eguneroko lanean eragin zuzena izan du. Egoerari buruz hausnartu ostean, argi duzu lan-taldeak behar bezala funtzionatzeko eta lanari ahalik eta etekinik handiena ateratzeko, beharrezkoa dela lanean hainbat alderdi sustatzea.

Zerbitziburua zaren aldetik, idatzi gutuna zure ardurapean dauden langileei egoeraren berri emateko, langileak lanean motibatuta egoteak zer garrantzi duen azpimarratzeko, eta aurrera begira, motibazioa handitzeko asmoz, zenbait neurri proposatzeko eta arrazoitzeko.

2. ariketa: Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu.
Bat aukeratu eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulu**a idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopiatu lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

TESTU AIPAMENAK

1.

NEOFORMALISMOA

Lanpostuetan, edozein jardueraren aurrean, pauso eta tramite batzuk ezarri dira: helburuak, adierazleak, ebaluazio-irizpideak... Berdin balio dute prozedura horiek torloju-lantegi baterako, autobus-garraio enpresarako edo hezkuntzarako. Eta hezkuntzan, berdin haur hezkuntzarako edo unibertsitaterako. Inportanteena taulak eta excelak betetzea da. Horiek ondo antolatuz gero, hitz magikoa lortuko omen dugu: kalitatea.

Kalitatea, prozesuak, prozedurak... Baina horren barnean dagoena, funtsa, mamia, muina... garrantzia galtzen joan da. Badirudi, bere esanahiari uko eginez, forma dela funtsa. Eta hor gabiltza, taulak eta txantiloak betetzen bata bestearen atzetik. Baina inork ez du hitz egiten txantilo horren azpian dauden eguneroko praktikez.

Gaur 8. 2023-03-11.
Egokitua

2.

HERENTZIA UNIBERTSALA

Yolanda Díazek proposatutako herentzia unibertsalak eztabaida piztu du. Egitasmoak 20.000 euroko laguntza publikoa proposatzen du gazte guztientzat, adin-nagusitasuna betetzean.

Espanian, sehaska-arrazoiek eragindako desberdintasunari aurre egiteko formularik egokiena ote den da zalantzan jartzen dena.

Aditu batzuen arabera, horrelako neurriek bi helburu lortzen laguntzen dute: kapitalaren bidez ematen den belaunaldi-desberdintasunaren zirkulua haustea eta belaunaldi berrien askatasun-mailak areagotzea.

Baina, ba al du zentzurik horrelako laguntza batek? Ba al dago finantzatzerik?

SEMPERE, P. *El Pais*. 2023-07-06.
Egokitua

Idazmen-proba

3.

MEDIKURIK GABE JARDUTEKO GIDA

Agerikoa da medikuen falta etengabeko arretako guneetan (EAG). Eta hala adierazi zuten ekainean erizain eta medikuen elkargoek. «Behin baino gehiagotan, profesional medikorik gabe kudeatzen dira gune horiek», nabarmendu zuten. Orain, erizaintzako gida bat jorratu du Osakidetzak, medikurik ez dagoen EAGetan pazienteen balorazioak erizainek eurek egin ditzaten.

Erizainek erabakiak hartu behar izatea ez da kontu berria, baina aldaketa bat dakar gidak. Gabirel Perez Arabako SATSE sindikatuko idazkariaren esanetan, «Erizainek segurtasun juridikoa izango dute orain erabakiak hartzeko garaian. Aurretik ez dugu horrelakorik izan, eta erizainek erabakiak hartu behar izan dituzte gidarik gabe».

SILVA, O. *Berria*. 2023-08-04.
Egokitua

4.

GASTU MILITARRA VERSUS LANKIDETZA POLITIKA

Potentzia handien eta tarteko potentzien (India, Pakistan edo Turkia) arteko tentsioa handitzeak gastu militar globalaren hazkundera areagotu du.

Egoera horretan, baliabideak urritzen ari dira lankidetzaproiektuetarako eta larrialdi humanitarioko funtsetarako, eta horrek arriskuan jartzen du NBERen Garapen Iraunkorreko Helburuak (Agenda 2030) betetzea. Era berean, Hegoaldeko herrialdeek laguntza behar izango dute beren ekonomiak birmoldatzeko, klima-aldaketari buruzko COP27 konferentzian eskatu zen bezala.

Bestalde, gerra hotz egoera honetan, segurtasun nazionalako politikak indartzen ari dira, eta diplomaziarako baliabideak eta elkarrizketa politikorako politikak murrizten.

AGUIRRE, M. *El Pais*. 2023-04-19.
Egokitua

5.

PORNO GOGORRA ETA ADIN TXIKIKOAK

Mutil adingabeek neska adingabeen aurka egindako sexu indarkeria-kasuak areagotu egin dira.

Adituek adierazten dituzten arrazoen artean dago gazteek duten erraztasuna sareetan eduki sexuala eskuratzeko. Zentsura ez da inoiz ezereen irtenbidea izan, ezta pornografiarena ere. Baina kezkarria da telefono mugikorrek pornografia gogorreko edukiei egiten dieten guraso-kontrol ahula.

Lehen biktimak neskak izan daitezke, bortxatutako neskak; baina bigarren mailako biktimak indarkeria matxistaren patroien imitatzailer bihurtutako adingabeak dira.

El Pais. 2023-04-13.
Egokitua

6.

POLIZIA INDAR GUZTIAK PISTOLA ERABILTZERA BEHARTUTA

Onartu berri da “Armagintza eta defentsa neurrien sostengua Euskadiko Polizia indarrentzat” deituriko dekretuaren zirriborroa, eta orain Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluaren esku geratu da.

Proposamenak hainbat puntu jorratzen ditu, baina esanguratsuen da pistolaren derrigorrezko erabilera zehaztea. Ez dio axolako zenbat biztanleko herrian jarduten duten poliziek, denek erabili beharko baitute arma.

Udaltzain bakoitzak bere zerbitzurako baliabide tekniko eta defentsiboak edukiko ditu, hala nola arma eta balen aurkako txalekoa.

GURRUTXAGA, A. *Argia*. 2023-08-04.
Egokitua

Zirriborroetarako lekua
Gogoratu: ez da aztertuko orri honetan idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Gogoratu: ez da aztertuko orri honetan idatzitakorik

Zirriborroetarako lekua
Gogoratu: ez da aztertuko orri honetan idatzitakorik

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

[A eredua]

- **1. ariketa:** txertatu testu zatia.
- **Irakurgaia:** «PENTSIOAK: EZTABAIDA DESEGOKI BAT»

Hutsuneak	1.	2.	3.	4.	5.
Testu zatiak	D	C	A	F	E

Soberakoa	B
-----------	---

- **2. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA ARDATZ»

6.	C	7.	B	8.	B
9.	C	10.	A		